




2004ko urtekaria kaleratu dute Altzon «herritarrek bultzatuta»

HERRIKOA ▶ Herriko gaiak
erabiliz, jende askok hartu du
parte, urtetik urtera hobetzen

AURKEZPENA ▶ Jende andana
elkartu zen herenegun iluntzean
aurkezpenean Elordi elkartearekin ▶ 6



Aurkezpenaren irudia. N.LATABURU



McKinleyko gailurra ustez baino gogorragoa izan da lau mendizaleentzat

TOLOSALDEA ▶ Alaskan ibili eta McKinley Ipar Amerikako
mendi altuena igo duten eskualdeko lau mendizaleekin izan da
HITZA. Argazkian, Anjel Navas tolosarra eta Manu Joubert alegia-
rra zutik eta Unai Aizpuru eta Jon Goikoetxea *Boli* ibartarrak
makurtuta. INIGO TERRADILLOS ▶ 7

VILLABONA ▶

Ibaialdeko itxura aldatuko du Udalak Izartu programarekin

Alde Zaharraren inguruan egingo
dira hiru proiektutan banatuta ▶ 5

Nafarroa etorb. 11
Telf.: 943 65 12 64
TOLOSA

JANTZIAK
OSKI
oinetakoak

MERKEALDIA
OSKI
GAZTEA

Emeterio Arrese, 5
Telf.: 943 65 56 21
TOLOSA

ARETO FUTBOLA ▶

Tolargi taldea, hirugarren Espainiako Txapelketan

Asier Agirrezabala, Iñigo Belloso, Sergio Sorrosal, Eric Aguilar, Ion Artola, Julen Mendizabal, Iñaki Barriola, Imanol Landa, Joseba Illumbe eta Mikel Lizarza dira

I. ETXEBESTE - L. MONTES

Ez da makala Tolargi areto futbol taldeak egindako denboraldia. Gipuzkoako Ligako txapelaldun izan da taldea, baita Euskadikoa ere, eta Espainiako Txapelketan Iparralde guneko onena izan da. Hori gutxi balitz, Espainiako Txapelketako azken fasean maila ezin hobea erakutsi dute tolosarrek, eta hirugarren postua eskuratuta itzuli dira etxera. Egindako lan guztiaren ordaina da lortutakoa.

Pontevedran (Galizia) jokatu zituzten Espainiako Txapelketako finalak. Tolargi taldeak Euskadi ordezkatu zuen. Haiekin lehiatu ziren Andaluzia, Balear Uharteak, Galizia, Aragoi eta Valentzia. «Joan den irailean hasi ziren txapelketara sailkatzeko partidua; Espainiako klub ezberdinetan ari diren milaka gaztek hartu zuten parte, eta horiek guztiak amets bera zuten: azken fasera iristea. Tolargiokoez bihurtu dute errealtate amets hori», azaldu dute taldeko arduradunek.

Espainiako Areta Futbol Konfederakundeak Galiziako prentsa idatzian adierazi duen moduan, «maila altueneko areto futbol txapelketa» izan da Pontevedran jokaturakoa. Tolosako hamar gaztek, Tolargi taldearen izenean, argi utzi zieten aurkari izan zituzten beste selekzioei «garrantzitsuenak kalitate, ilusioa eta taldearen batasuna» direla. Gainerako klubetako ordezkariek eta teknikoen begirunea eta errekonozimendua jaso zuten, hala.

Izan ere, halaxe zioten: «Maila horretara osagarri hauekin bakarrik heldu daiteke: areto



Tolargi-ko jokalariek, taldeko arduradunak eta senitartekoak, pozarren, Pontevedran, garaikurrarekin. HITZA

SAILKAPENA ▶

Sei talde aritu ziren nor baino nor, eta erdiko postuan bukatu zuen Tolargi, Euskadi ordezkatzen zuten Tolosako hamar gazteen taldeak.

1. Andaluzia.
2. Balear Uharteak.
3. Euskadi.
4. Galizia.
5. Aragoi.
6. Valentzia.

futbola gustuko izanik, eta lagun talde sendoa osatuta».

«Taldea bikaina»

Asier Agirrezabala, Iñigo Belloso, Sergio Sorrosal, Eric Aguilar, Ion Artola, Julen Mendizabal, Iñaki Barriola, Imanol Landa, Joseba Illumbe eta Mikel Lizarza futbolariak osatzen dute Tolargi areto futbol taldea. Haien arduradunak harro mintzatzen dira taldekideez, eta halaxe definitzen dituzte:

«Hamar mutiko, hamar jokalaria, hamar zehaztasun makina, Tolosan ekoiztakoak, modu bikainean Euskadi Espainiako Txapelketan ordezkatu dute-nak».

Txapelketa hastear zenean iragarri zuten «gogor borrokatu» zirela, eta esandakoa bete egin dute, ez bairik gabe. «Merezitako atsedena» hartuko dute orain Tolosako mutikoei, eta datorren denboraldiari gogotik ekingo diotela adierazi dute, pozarren.

ZINEMA ▶

Tolosako Zinemazale Taldearen eskerrak

Udalari egindako proposamenarekin aurrera darraitela jakinarazi dute

L. MONTES

«Leidor aretoko pantaila erraldoia, Euskadiko handiena eta Espainian orain gutxi arte bigarrena edo hirugarrena, agurtu beharra zegoela eta, eta urtebete zinema aretorik gabe egongo garela kontuan hartuta», egin berri diren zine emanaldiak antolatzea proposatu zuen Tolosako Zinemazale Taldeak.

Kultur departamenduko arduradunei eta batzordekideei eskerrak eman nahi dizkiete, «gure eskaera aintzat hartzeagatik»: «Badakigu saioak antolatzeke garaian arazo asko izan dituztela —filmak kontratatzeke zailtasuna eta atzerapena, denbora falta, data desegokiak...—; hala ere, aurrera egiteko erabakia hartu zuten. Adierazitako interesaz pozgarria ez ezik, itxaropentsua ere bada uste dugun».

Donostia Kulturako zine saileko arduradun Jose Luis Rebordinos gazteluarrari ere «publikoki eskertu» diote, filmak aukeratzeko eta kontratatzeke egindako gestioagatik.

Bestalde, «zine areto publikoak bultzatzeko asmoz», Tolosako Udalean aurkeztutako proposamenak Gipuzkoa osoan ari dira zabaltzen zinezaleek. Gipuzkoako Foru Aldundian ere aurkeztu dituzte. Uda pasatu eta gero Eusko Jaurlaritzako Kultur departamendura joko dute. Ekimenaren aldeko bilerak antolatzen eta deialdi zabalak egin jarraituko dute, gainera.

UDA HONETAN JANTZI EZAZU
HITZAREN KAMISETA

SALGAI HITZAREN egoitzan eta
OSKI GAZTEA
Emeterio Arese, 5 • Tel.: 943 65 56 21
TOLOSA

MATRIKULATZEA ▶

EGA ikastaroa Aitzol Udal Euskaltegian

Aitzol udal euskaltegiak EGA ikastaro trinkoa eskainiko du 2005-2006 ikasturtean. Eskolak irailean hasiko diren arren, orain zabaldu dute matrikulazio epea. Hilaren 15a arte, ostirala, eman daiteke izena, euskaltegira jo behar da (Pablo Gorosabel. 943 65 10 06).

ZIKLOTURISMOA ▶

Marraskilo taldearekin irteera, bihar

Marraskilo zikloturista taldeak, igandero legez, irteera antolatu du bihar. 95 kilometro txangoa izango da oraingoa. Tolosatik abiatu, Segura, Zerain eta Aztiria pasatu, eta Zumarragatik Larraitzera igota itzuliko dira Tolosara. Joan nahi duenak Marraskilo taldearen egoitzan (Berazubi auzoa) agertu behar du, 08:00etan.

LEHIAKETA ▶

Txotxongilo antzerki lehiaketa

Tolosako Ekinbide Etxeak (TEE-CIT), Titirijai-ren barruan, txotxongilo antzerkia haurrentzat idazlan lehiaketa antolatu du. Lanak irailearen 1a arte aurkez daitezke, TEEren egoitzan (Emeterio Arrese, 2). Irabazleak 4.000 euroko saria jasoko du. Gainera, bere obra taularatu egingo da.

MENDIA ▶

Alpino Uzturrek antolatuta, Picos de Europa

Alpino Uzturre mendi elkartek Picos de Europa (Kantabria, Espainia) mendirteera antolatu du hilaren 23, 24 eta 25eko astebururako. Bost orduko ibilaldia osatuko dute, besteak beste, eta Pico Tesorero mendia (2.570 metro) igoko dute bidean. Izena emateko epea zabalik da dagoeneko elkartearen egoitzan (Gudari 5, behea. 943 65 27 89)

HEZKUNTZA ▶

Irudi berria Samaniego, Orixe eta Tolosaldea LHI ikastetxeentzat

Oihana Arrieta Orixe ikasleak irabazi du logotipo lehiaketa

L. MONTES

Samaniego, Orixe eta Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuak irudi berria izango dute aurrerantzean. Ikastetxe bakoitza identifikatzen duen logotipoaz gain, irudi bateratua sortu berri dute, «aurrerantzean komunean egindako hainbat jardueri bidea irekiko digun aitzakia».

Hiru ikastetxeen Hizkuntza Normalkuntza Plangintzako helburuetako bat «hizkuntza paisaia hobetzea» da. Asmo horretan, «Santa Luzia osatzen dugun ikastetxeak Hezkuntza Gune euskalduna erreibindikatuko duen errotulu txartel bat ipintzea» erabaki zuten, egun Santa Luzia guneak ikastetxeen errotulua dagoen inguruan.

Horretarako, hiru ikastetxeak identifikatuko zituen irudia bilatzeari ekin zioten. Samaniego, Orixe eta Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuak



Irabazlea (eskuinetik bigarrena) eta zuzendariak, saria ematen. HITZA



Logotipo berria. HITZA

logotipo lehiaketa antolatu zuten hiru ikastetxeetako ikasle guztien artean.

Partaidetza handia izan zen: 135 ikasle izan ziren guztira lehiaketan parte hartu zutenak. Orixe BHIko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailako Oihana Arrieta ikaslea izan zen irabazle, eta 300 euroko saria jaso zuen.

OSASUNA ▶

ELA: «Gipuzkoako osasun sistema pribatuko historiaren itunik onena»

Asuncion klinikako Enpresa Ituna sinatu dute, bost urterako, Osakidetzarekin parekatuz

I. ETXEBESTE

«Sinatu berria da Tolosako Asuncion klinikako Enpresa Ituna. Bost urteko indarraldia du (2005-2009), eta Osakidetzaren soldataren %100 lortu dugu gure oinarriko soldatarako». Horixe adierazi du Oriagoierriko ELA sindikatuak Asuncion klinikaren lortutako akordioari buruz. «Gipuzkoako osasun sistema pribatuko historiaren akordiorik onena» sinatu dutela esanez: «Oinarriko soldata hori batura honen ondorioa da: Osakidetzaren oinarriko soldata gehi lantokiko osagarria gehi osagarri berezia».

%11,91 eta %18,88 bitartean daude 2005 urteko igoerak ELAren datuen arabera. Hori horrela, OLT/EUD langileek

%12,53ko igoera izango dute, eta erizaintzako laguntzaileek eta administrari laguntzaileek %14,16koa. Lanaldia, indarraldian zehar 1.670 ordutaraino murriztuko da.

Plusak

«Jaiegunetan, egunez zein gauzez, jaiegun berezietan eta gaueko txandan, parekatze prozesu bat adostu dugu. Aurtentzen, 2005ean, jaiegunetan eta egunez eman beharreko plusen igoerak %16,57tik %30,57-ra joango dira: erizainen eta administrari laguntzaileei dagokionez lehena, eta OLT/EUD-erizain pertsonalari bigarrena».

Guardien konpentsazioa ere arautu dute, ELA adierazi duenez, «eta hor ere lortu da Osakidetzarekin homologa-



Asuncion klinika. L. MONTES

tzea». Eta kontratazioari dagokionez, aurtengo martxoaren 1az gerotik fisioterapeutei lan kontratua eskaini zaiela dio sindikatu horrek, «orain arte autonomo gisa lan egiten zuten eta».

ELA aldetik lortutako akordioa «oso ontzat» ematen dutela esan dute: «Azkenean, klinikako langile guztien lan aintzat hartu da. Nahiz eta klinika pribatua izan, Tolosaldeko herritarrei eskainitako zerbitzua diru publikoaz egiten da ia %100ean. Horregatik, ELA garbi eduki dugu beti klinikako langileen lan baldintzak Osakidetzarekin parekatu behar zirela, eta azkenean, soldatari dagokionez, lortu dugu». Horretarako, «garrantzizkoa» izan da ELA eta LAB sindikatuak batera jardutea, hala nola, «zuzendaritzaren jarrera ona akordio batera heltzeko».

GUTUN@K ▶

Eskola ibiltaria 2005: Euskal Herria da gure eskola

Duela aste batzuk Eusko Jaurlaritzaren ikerketa bat argitaratu zen, non aipatzen zen euskal ikasleok ez dugula gure herria ezagutzen. Ez dira datu berriak guretzat, eta egoera horri buelta eman nahian, duela bost urte Ikasle Abertzaleak ikasle antolokunde Eskola Ibiltaria antolatzen hasi zen.

Bost urte hauetan Baztan aldean ibili gara, Bizkaiko kostaldean, Urbasako mendizerran, Anbotoren magalean, Orreagan... Bertako biztanleekin hitz egin dugu, tokian tokiko errealitateaz ezagutu dugu, natura eta jantza zuzentza zuzentza ditugu...

Aurtengoan ere Eskola Ibiltariaren edizio berri bat antolatu dugu Bizkaiko mendialdean, Enkarterrietan, hain zuzen ere. Eskualde ezezagun eta eder honetatik barrena ibiliko gara hiru egunez kobazuloak bisitatu, parke eolikoei buruz hitz egingez, jolastuz, karlistadak gogoratuz... Eta azken egunean Balmasedara iritsiko gara, non bertako jaietan parte hartuko dugun.

IA-tik dei egin diegu euskal ikasle eta gazte guztiari parte har dezaten Eskola Ibiltarian, uztailaren 14an, 15ean eta 16an. Informazioa www.ikasleabertzaleak.org helbidean aurkitu dezakezue, edo 685776904 telefonora deituz. Horrenbestez, Karrantzako plazan ikusiko dugu elkar, uztailaren 14ko goizeko 11 etan. Euskal Herria da gure eskola!

ENEKO BARBERENA
(IKASLE ABERTZALEAK)

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Zorion agurrak. HITZAN argitaratutako zorion agurrak Interneten ikusi nahi? Sartu eskualdeko egunkariaren webgunera!



GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Gerra zibileko
desagertu eta
hildakoen
oroimena
berreskuratzen

'Goiz eder onetan erail bear nabe/ txindor baten txintak gozotan naukela/ el naiten leyora begiok intz-gabel...' izan ziren Lauaxeta heriotzaren zain zegoela paratu zuen azken gutunean idatzi zituen lehen hitzak. Hutsik egin gabe heldu zen poeta bizkaitarrak iragarritako fusilamendu hura Gasteizko Santa Isabel hilerria, Lauaxeta fusilatu zuten hormara, 1937ko ekainaren 25ean.

Hego Euskal Herrian, Lauaxeta bezala, 5.000 gizon-emaume fusilatu zituzten 1936ko gerra hasi ostean. 5.000 gorpu

ahantzuran lurperatuta. Hizkirik, izen-abizenik, inisialik gabeko 5.000 gorpu. Hizkirik gabeko zenbaki hutsak.

1936ko uztailaren 18an estatu kolpe bat eman zen errepublikar erregimenaren aurka, altxamendu militar bat legezotasun demokratikoaren aurka. Urteetan, ordea, ebidentzia hau ukatu egin zaigu. Orduko irabazleek gurutzada erlijioso bat izan zela esan zuten, altxamendu bat. Ez zela errepublikar biktirik izan, baizik eta garbiketa ideologikoa izan zela eta gertaera lazgarrienak, Gernikako eta Durangoko bonbardaketak kasu, abertzaleen beraien maltzurkeriaren emaitza izan zirela.

Hamarkadetan zehar historia ofiziala den gezur handi bat eraiki zuten. Biktimei izena ukatu zitzaizen eta beraien familiari hauen hutsuneaz negar

egitea debekatu zitzaizen. Ahantzura dekretatu zen.

Denbora gehiegi pasa behar izan da, gezur handi hau frogatzeko. Irabazleek ez dute inoiz beraien egia aldatu, ez diote inoiz utzi beraien gerra aldarrikatzeari, beraien gezurra aldarrikatzeari. Bitartean galtzaileak hilerrietan, atzerrian eta ahaztuta egon dira atsedean hartzen. Azken urteetan pixkanaka-pixkanaka, sarri askotan laguntzarik gabe, burdinezko borondatearekin eta determinazio goraipagarriekin, antzak izan dira historiaren bahitutako zati hau berreskuratze-ko egin diren ahaleginak. Aranzadi zientzi elkarteak ere, hainbat instituzioaren laguntzarekin, zenbaki huts diren gorpuei izen abizenak aurkitzen saiatzen ari da.

Hau guztiarekin ez dugu biktimek edota beraien familiek ez

zekiten gauzarik aurkitu. Gurea berreskuratze lana izan da, izen eta abizenak jartzearena, ezkutarazia lurpetik ateratzearena, ekintza ilun horiei erraiak ateratzearena. Gauza bakoitza bere lekuan jartzeko lan bat, eta neurri batean, historian zehar hutsik zegoen parentesi horri hizkiak jartzearena. Eduardo Galeanok zioenez, 'batzuek ahaztu egin behar dela diote, gero zerbait berriro eraikitzeko. Hala ere, esperientziak erakutsi digu ahaztuz gero, historia errepikatu egiten dela, eta gainera errepikatu amesgaiztoa izango balitz bezala. Gogoratzea zer gertatu zen ona da jakiteko iraganaren berri, izan ere, iragana gogora ekarri zuten gero, oraina aldatuko dugu'.

Bahitu ziguten oroimenaren berreskuratze lana hasi berria da. Oraindik, ordea, ikaraga-

rrizko lana dago egiteko. Oraindik ez gara amaieraraino iritsi. Baina iristen garenean, heroi izengabe eta ahantzi haien seme-alabek eta hauen seme-alabek beraienak ziren jendearen izen-abizenak harro aldarrikatu ahal izango dituzte. Oroimen historikoa berreskuratzeak duen garrantzia delata, uztailaren 12an, asteartean, 19:00etan, Anoetako Gaztetxean, Anoetako Gazte Asanbladak ikus-entzunezko hitzaldia antolatuta du. Berreskuratze lana, guztion betebeharrak baita.

Lauaxetak heriotzari aurrez aurre eta damurik gabe begiratzen ziola idatzi zuen azken gutuna baikor eta etorkizunari begira amaitu zuten: 'Erri zintzo-onenak zaindu dagiala/il ginenon atsa, il ginenon ala'.

MIKEL ERRAZKIN (ARANZADI ZIENTZI
ELKARTEA) ▶ ANOETA

LEITZA ▶ GIZARTEA

Eneko Aizpururen askatasuna
eskatzeko elkarretaratzea

Jaione Astibia ▶ Eneko Aizpururen askatasuna eskatuz elkarretaratzea egin zuten herenegun iluntzean —osteguna— Leitza, bere jaioterrian, nahiz eta bera orain Saran bizi. Ostegun eguerdi aldera epailearen aurretik igarota, horrek Soto del Real-en espetxeratzeko agindua eman zuen. Hauxe izan zen elkarretaratzean baieztatu zutena, atzoko HITZAN aurreratu zen bezala—. Eta bere senideek ez zutela semearekin egoteko aukerarik izan ere baieztatu zuten, horretarako hurrengo bisitara itxaron beharko dutela azaldu zuten. JAIONE ASTIBIA

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Kalapie elkarteak,
bidegorriaren alde

Udala eta herritarrak «zoriondu» nahi ditu; Gorosabel kalekoa «ibilbide eroso eta funtzionala» dela dio elkarteak

ERREDAKZIOA

Kalapie Hiriko Txirindularien Elkarteak Tolosako Udala eta herritarrak «zoriondu» nahi ditu duela gutxi inauguratu den bidegorriagatik. Azpiegitura berri honek Europar mugikortasun jasangarriaren alde apostu egiten duten hiri zerrenda gero eta handiagoan sartzen duela Tolosa dio.

Hemendik aurrera tolosarrak (mugitzeko modu ez kutsagarria, eraginkorra, osasungarria eta ekonomikoa) segurtasunez erabiltzeko aukera izango dutela dio, hiriaren zati handia zeharkatzen duen bidegorriari esker.

Hiriko txirindularien ikuspegitik Gorosabel kaleko bidegorria erabiltzaileentzat «ibilbide eroso eta funtzionala» dela dio Kalapie «erdigunean kokatuta eta herriko bide sarearekin ondo lotuta dagoelako». Errepidean kokatzea eta plastikozko pibote batzuen bidez bereiztea («egokia») iruditzen zaie. Beste herri askotan erabili den konponbidea dela eranstean dute. Bestalde, gaur egungo diseinuak oinezko, auto-gidari eta txirindularientzat istri-



Bidegorria San Frantzisko pasealekuan. IRATXE ETXEBESTE

puak sortzeko arrazoiz zuzena izan daitekeenik ez du aste.

«Horregatik trafiko motorizatuak eragiten dituen kalteak gutxitzea eta espazio publikoa gehienbat pertsoneri eta garrario mota atseginei eta ingurumenarekiko errespetagarrii eskaintzera jotzen duen bitzita kalitatea lortzeko Tolosak hasitako bidean, beste aurrerapauso bezala baloratzen dugu», dio elkarteak.

Udalak hasitako beste ekimen batzuk ere («oso positibo») baloratzen du Kalapie: erdiguneko leku zabalen peatonalizazioa, herriko autobus zerbitzua martxan jartzea, autoen

aparkalekuak arautzea eta trafikoa lasaitzeko neurriak.

Bidegorriaren irekierak «bizikletaren erabilpena nabarmen igo» duela eta «pixkanaka gehienbat pertsoneri eta garrario mota atseginei eta ingurumenarekiko errespetagarrii eskaintzera jotzen duen bitzita kalitatea lortzeko Tolosaren neurriko herrietan dituen abantailengatik». Beraz, tolosarrak ardatz ziklista honetaz «gozatzea» animatzen ditu eta Udala eta herritarrak «zoriontzeko» ditu «proiektu garrantzitsu eta anbizio handio hau» gauzatzeari, «Gipuzkoako beste herri batzuetarako erreferentzia»

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio berean

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

ANOETA ▶

Mikroenpresei
zuzendutako
ikastaroak
KZgunean

ERREDAKZIOA

Anoetako KZgunean mikro-enpresentzako —10 langile baino gutxiago dituztenak— eta autonomoentzat doako ikastaroak antolatuta daude. Hilaren 13an, *Komunikatu hornitzaile eta bezeroekin posta elektronikoaren bidez* ikastaroa emango da. Hilaren 18an, *Banka elektronikoa: Kontu mugimenduak, intsul-daketak eta transferentziak Interneten* ikastaroa. Hilaren 19an, *Banka elektronikoa: ordainagiriaren helbideratzea, ordainketak eta kobrantzak Interneten* ikastaroa. Azkenik, hilaren 28an, *Leialdu bezeroak sareko Buletin elektronikoak erabiliz* ikastaroa. Ordutegia berdina da guztietan: 16:00etatik 18:00etara. Izena emateko udaletxera deitu behar da eta Tererengatik galdetu.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarralde.** Osasun ebea: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroizko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurraremendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

VILLABONA ▶ AISIA



Sanferminen inguruko ekitaldiak udaleku irekietan

I. Garcia ▶ Villabonako udaleku irekien baitan atzo egun berezia izan zuten. Eskualdeko beste herrien antzera, sanferminen inguruko ekitaldia burutu zuten. Haur guztiak zuri-gorritz jantzita. Lehenengo gauza egin zutena pregoia irakurtzea izan zen udalaxteko

balkoitik. Ondoren, Kultur Etxetik abiatuta eta haur zaharrenak zenez mozorrotuta, entzierroa egin zuten. Korrikaldiek plazan jarraitu zuten —ezkerreko argazkian—. Hainbeste mugitu eta gero, hamaiketako hartu zuten haurrek. **I. GARCIA**

VILLABONA ▶ HIRIGINTZA

Ibaialdeko itxura aldatuko du
Udalak Izartu programarekin

Hiru proiektutan banatuko dira lanak eta Alde Zaharraren inguruan egingo dira

ERREDAKZIOA

Oriaren ibarraldea eraldatuko da datozen urteetan. Villabonako Udalak, Eusko Jaurlaritzaren Izartu programa baliatuz, zaharberritze lanak egingo ditu 2008 urtera bitartean. Obrak Alde Zaharrean burutuko dira eta hiru proiektu hartuko ditu: Kale Nagusiko urbanizatzea eta oinezkoentzat jaretzea, ibarraldeko pasealekua eta Oria ibai gaineko pasarela. Guztira 1.201.548 euroko inbertsioa suposatuko dute lan guzti hauek. Horietaik Udalak %25a jarriko du, hau da, 300.387 euro. Beste %75a Eusko Jaurlaritzaren esku izango da emango dituen laguntzen bitartez.

Kale Nagusian urbanizazio osoa burutuko da eta oinezkoentzat jarriko da. Lanak Errebotoke plazatik Zubimusuko zubiraino egingo dira. Kalearen beste zatia Salvadoraren proiektuan baitan sartuko da. Ibaraldeko pasealekuari dagokionez, udaletxea era Zubimusuko zubiaren arteko zatia hobetu eta luzatuko da.

Oria gaineko pasarela aldatu egingo da lekuz, Eusko Jaurlaritzara garatzen ari den ibaraldean erregularizazioaren proiektua dela eta. Zizurkilgo eta Villabonako udalen artean

banatuko dute obra horren arrekontua.

Izartu programa

Eusko Jaurlaritzaren ekimen bat da Izartu 2004-2008 programa. Hirigintzako, gizarte arloko edo ingurumenari lotutako arazoak dituen herriguneko ekonomikoki eta sozialki biziberritzea du helburu programa honek, horrela inguru-arekin integrazeko eta bizi kalitate maila handiagoa bermatzeko.

Izarturako 109 milioi euro zuzendu ditu Eusko Jaurlaritzak, eta epe bat ezarri zuten udalek beren proiektuak aurkezteko. Villabonako herriguneez ez zuten erakusten bakarka arazo larririk eta beraz ez zuten aukerarik Izartu programaren bitartez aintzat hartzeko diru laguntzak lortzeko. Egoera berdinean aurkitzen zen Zizurkil ere.

Horrela, Villabona eta Zizurkil artean muga egiten duen Oria ibaiaren artean hartuta proiektu bateratua aurkeztu zuten bi udalek Eusko Jaurlaritzara. Hain zuzen, proiektu horren helburua ibai bera berreskuratzea zen bi udalerrien arteko konexio urbanistikotzat, horrela ibaiaren bi ibaraldeak zaharberrituz, hau da, Villabo-

INBERTSIOAK ▶

2004-2008 urteetako inbertsioak, BEZ barne, eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza.

KALE NAGUSIKO
URBANIZAZIOA

Guztira: 619.419 euro.
▶ 2004: 11.023 euro.
▶ 2005: 190.745 euro.
▶ 2006: 389.165 euro.
▶ 2007: 28.486 euro.
Laguntza: 464.564,25 euro

ERRIBERA PASEALEKUKO
URBANIZAZIOA

Guztira: 449.256 euro.
▶ 2007: 372.918 euro.
▶ 2008: 76.338 euro.
Laguntza: 336.942 euro

ORIA IBAI GAINEKO
PASARELA BERRIA

Guztira: 132.873 euro.
▶ 2008: 132.873 euro
Laguntza: 99.654,75 euro

nako Alde Zaharra eta Zizurkilgo Ubare eta Aurrera auzoak, RENFEko lursailetan aparkaleku batzuk egiteaz gain. Aurkeztutako proiektu horrek balorazio ona jaso zuten Eusko Jaurla-

ritzatik eta guztira bi udaleki 1.897.180 euroko laguntza bideratuko die, hots, laguntzak jaso dituzten EAEko 68 udalerrietatik bederatzigarrena garrantzian.



HAUR HEZKUNTZAKO ENPRESA BATEK

Lan-poltsa bat osatzeko, honako langile hauek behar ditu:

- Sukaldari-laguntzailea
- Garbitasunerako laguntzailea
- Hezitzaileak

Curriculumak Tolosako 289 postakutxara bidali

AMEZKETA ▶

Saihesbidearen
proiektua
onartu du
Aldundiak

N. LATABURU

Diputatuen Kontseiluak GI-2133 errepidearen Amezketa saihesbidea egiteko proiektua onartu du. Proiektuak aurreikusten du 800 metro luzeko saihsbide bat egitea GI-2133 errepidetik doazen ibilgailuek Amezketa erdigunea zeharkatu beharrik izan ez dezaten.

Saihsbidearen sekzioa 3 metroko bi erraia izango dituen galtzada batez eta metro bateko bazterbideez osatuta egongo da. Proiektuan, halaber, hiru bidegurutze aurreikusten dira saihsbidearen zehar. Horieta bi T itxura dutenak dira, gutxienez 15 metroko erradioarekin, hirugarrena, berriz, biribilgunea izango da ardatzean 20 metroko erradioa izango du, 4 metro zabaleko erreiki eta metro bateko bazterbideak kanpoaldean nahiz barrualdean, eta %2ko peraltea barrualdera. Proiektuaren batezbesteko aurrekontua 2,2 milioi eurokoa izango da (2.257.696,60 euro).

ALEGIA ▶

Herri erditik
igarotzen den
errepidea
itxiko dute

N. LATABURU

Alegiako Udaletik jakinarazi dutenez, jaiek irauten duten artean (hilaren 13tik 17ra) herria zeharkatzen duen errepidea itxi egingo dute eta, beraz, Alegia kanpotik doan errepidea erabil dadila eskatu dute.

ALTZO ▶ GIZARTEA

2004ko urtekaria kaleratu
dute «herritarrek bultzatuta»

Aurkezpen ekitaldia herenegun burutu zuten Elordi kultur elkartearen; jende andana bildu zen bertan, ondoren merienda ere banatu zutelarik



Herenegun egin zuten aurkezpen ekitaldia Elordi elkartearen, non jende andana bildu zen. NOELIA LATABURU

NOELIA LATABURU

Azken astetik aurrera 2004. urteko urtekaria topa dezakete altzotarrek euren etxeko postontzietan. Hilabete askotako lanaren ostean, azkenean heldu da. Herenegun gaualdean, Altzoko Elordi kultur elkartearen, burutu zuten aldizkariaren parte hartutakoek aurkezpen ekitaldia. Jende mordo bildu zen bertan eta Agustin Amiano, urtekariarekin arduratu den kultur batzordeko kidea, «pozik eta gustura» azaldu zen ekitaldiaren nondik norakoarekin. «Ume asko izan ziren eta beraiek interesa erakustea beti da pozgarria».

Ordu erdiko iraupena izan zuten ekitaldiak, zeinean Amia-

nok urtekariaren gaineko informazioa luzatu zuen. Halaber, urtekaria aurrera ateratzen lagundu duten gaztetxoek ordezkaritza batek osatu zuten aurkezpen mahaia. Agerraldia alderaketa batekin hasi zuen Amiano altzotarrak. 1997. urteko eta 2004. urteko urtekariak aurrez aurre jarrita, 7 urte horiek emandako aldaketak azaldu zituen. Orrialde kopurua, kolore biziagoak eta idazleak aipatu zituen, esaterako. Amianoren hitzen ondoren, gazteen ordezkariekin izan ziren entzulgai, zeinak idazterakoan izandako esperientzien gainean jardun zuen. Behin amaituta, askaria eskaini zuten elkartearen bertan, «giro alai» dena izan zutelarik.

Batzordekoek jakinarazi dutenez, urtekaria argitaratzekoan «altzotarren artean kandelatza bat piztea» da helburua, bai eta «urtekoen berri ematea». Aldizkariak «oso harrera ona» izaten duela gaineratu

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Asteburueterako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da.
Deitu 943 691 933.

kuntzarik ere sartu dute aurretigoan, izan ere Altzoko Miel Haundi erraldoiaren gaineko bertso bilduma baten eranskina banatu dute, bertso egilea Jexux Murua izan delarik.

Biztanle adina gai

Altzon jaioak, Altzon bizitakoak edota Altzorekin hartu-emanan duten pertsonen ahalbideratu dute urtekaria, beraiek bilakatu baitira idazle. Gai mordo erabili dituzte, «bakoitza aditua denari buruz idatzi du». Bidaia, medikuntza, artzaiei buruzko erreportaia, hainbat elkarrizketa, biodibertsitatea eta ekonomia izan dira, beste hainbat artean, aukeratuak. Agustin Amiano, Garikoitz Llobregat, Arantxa Urdangarin, Maixa Lizarribar, Marta Agirrezagala, Xabi Larrea, Xabier Olano, Roman Ganzarain, Miel Olano, Jexux Murua, Antton Iztueta, Inaki Murua, Manuel Olano, Pilar Iparragirre, Ixiar Amiano, Loli Arandia, Lurdes Murua eta Joxe Mari Zapirain izan dira idazleak.

Datorren urterako helburua «urtarrilarako ateratzea» izango da, «informazio bilketa lana abenduan hasiz gero». «Zure lana polita geratu dela ikusita poztu egiten zara eta proiektu honi utsi behar dugula uste dugu, ezbaierik gabe», azaldu du Agustin Amianok.

Urtetik urtera hobe

1997. urtean atera zuten aurrera urtekaria sortzearen ekimena. Bertan Altzoko herriarren berri, herriaren berri eta urtearen jazotako kontuak ziren protagonista. «Urteak joan ahala gero eta zailagoa dago gaiak topatzeko, historiaren gainekoak agortzen baitoaz», azaldu du Agustin Amianok. Dena den, orrialde kopurua, tamaina, orrialdeen koloreak eta idazle kopuruak murriztagoak ziren. Etenik gabe, urtez urte, kalera tu dute urtekaria eta hobekuntza nabaria izan da zazpi urte hauetan zehar.

Helburua betetzen ari dira beraz egileak, pixkanaka pixkanaka, kalitatezko zerbitzu



Urtekariaren azala. HITZA

bat eskaintzearena, hain zuzen ere. Hala ere, lan zaila burutzen dute, izan ere beraiek ere langileak dira eta ◀

ARAMBURU
Salgai (Tolosa). Pisua igogailuarekin Larramendi kalean 112m2. Bista zoragarriak.
Salgai (Tolosa). Pisua Belate Ibilokian, Bista zoragarriak.
Salgai (Tolosa). Pisua San Frantzisko ibilokian, 126m2.
Salgai (Tolosa). Lokal komertzialak Nagusia kalean eta Belate Ibilokian.
Alokatzeko (Tolosa). Lokal komertziala Errementari kalean.
Alokatzeko (Tolosaldean). Garajea Pedro de Tolosa kalean, Araba Etorbidean, Ibarra.
Alokatzeko (Salou). 4 edo 6 lagunentzako 2 logelako apartamentua. Igerilekuarekin.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK
Jogurta
Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

BELAUNTZA ▶

Txotxongiloak ikusgai datorren ostiralean

Datorren ostiralean, uztailaren 15ean, Irrintzi taldeak *Bakartxoren zapatilak* txotxongilo emanaldia eskainiko du. Kultur Etxean izango da 11:00etan.

BERASTEGI ▶

Podologoaren bisita eguna aldatu egin da

Gaztainondo jubilatuen elkartetik jakinarazten dute podologoaren bisita datorren uztailaren 23an izan beharrean, uztailaren 30ean izango dela. Jubilatuen elkarteko zuzendaritzak barkamena eskatu nahi du sortutako eragozpenengatik.

ALEGIA ▶

Gaztetxeko herri bazkaria ostiralean

Aurreko urteetan ez bezala, aurtengo herri bazkaria ostiralean izango da festa alternatiboen barnean. Alegiako Gaztetxean egingo da 14:00etan, eta sarrerak 5 eurotan daude salgai ohiko lekuetan. Egunean bertan 10 euro ordaindu beharko dira.

ASTEASU ▶

Santamaña V. Kros igoera egingo da bihar

Santamaña V. Kross Igoera antolatuta dute Santamaña Elkarteko Udalarren laguntzarekin biharko. 10:30ean hasiko da proba. Guztira zazpi kilometroko ibilbidea du krosak. Herrian bi itzuli egin ondoren, Santamañara igoko dira korrikalariak. Izen-ematea doan da, eta proba hasi baino ordubete lehenago egin daiteke edo 943 691 907 telefonoan.

KIROLAK ▶

«Everest bezain gogorra» da McKinley lau mendizaleentzat

Uste zutena baino gogorragoa izan da Alaskako gailurra eskualdeko lau mendizaleentzat; esperientzia polita izan da errepikatzeko gogoz itzuli dira



Temperatura ikaragarriez gain, gailurrean horrelako paisaiak gozatu ahal izan zuten. HITZA



Taldeko kideak glaziarera aeroplanoz joan aurretik. HITZA



Aizpuru ibartarra McKinley gailurrean. HITZA

IÑIGO TERRADILLOS

Alaskako hotz ikaragarriak utzita temperatura goxoagoetara ohituta daude jadanik, McKinley gailurrera igotzeko abenturan murgildu ziren mendizaleak. Jon Goikoetxea *Boli* eta Unai Aizpuru ibartarrak, Manu Joubert alegiarra eta Anjel Navas tolosarra dira, bi ordiziar, bi gasteiztar eta madrildar batekin batera, zuten helburua bete dutenak. Duela hiru astetik etxean aurkitzen

dira eta Hitzarekin aritu dira solasean espedizio honetan bizi dituzten une ahaztezinak eta jasan dituzten zailtasunak gogoratuz.

Maitzaren 24ean abiatu ziren Alaskara 26ean iristeko. Talkeena-ra 27an arratsaldean iritsi ziren, eta bertan azken prestaketak egin zituzten. Hurrengo egunean aeroplanoz glaziarera joan ziren. Han trineoak-eta prestatu ondoren oinarriko baserako bidetara ekin zioten.

6.170 metroko gailurra izan

nik, uste baino gutxiago prestatu zirela diote lau mendizaleek. Errazagoa izango zelakoan «Everest igotzea moduko», dela konturatzen joan ziren pixkanaka. Izan ere, 2.000 metroko desnibela dituen oinarriko kanpora bi egunetan heltzea pentsatzen zuten eta trineoak emandako arazoengatik eta eguraldi txarra izan zutelana eta sei egun behar izan zituztela azaltzen dute lau mendizaleek. Oso gogorra izan arren, «oinarriko kanpora

gerturatzea oso polita» izan zela diote.

Oinarriko kanpora heltzean, zain egon behar izan zuten eguraldi ona noiz ageri gailurrerako bidetara ekin ahal izateko. Itxarote hori, ordea, mugatua zela azaltzen du Aizpuru, etxera bueltatzeko hegazkina ekainaren 10ean baitzuten taldeko kide batzuk, ibartarra tartean. Urduritasunak bultzatuta edo, ibartarra izan zen lehena gailurrerako bidea hartu zuena, eta helburua beteta itzuli zen oinarriko. Hurrengo egunean igo ziren *Boli* eta Navas. «Mendia izugarria izan zen», dio *Bolik*, eta Navas-ek, berriz, oso polita zela eta gustura igo zuela. Egun horretan abiatu zen alegiarra, baina eguraldiagatik eta oinetan nabari zuten hotzagatik atzera egin zuen eta egun batzuk itxaron beharra izan zituen gailurra egiteko, taldeko beste kide batzuk bezala.

Behin guztia amaituta, laurek ere, eskertu nahi izan dute oinarriko kanpora *Boliren* neskalagunaren aldetik jaso duten laguntza, han egon baitzen edozertan laguntzeko prest, eta *Bolik* Ibarako Udalak eman diona eta Navas-ek Tolosako Udalarena eta Aralar Kirolak-ena ere eskertu dute. Bestalde, denentzat esperientzia polita izan da. Oso ondo konpondu dira elkarrekin, eta oso une bereziak bizi izan dituzte, berriro ere elkarrekin horrelako espedizio batean errepikatzeko gogoz daude beraz.

Etorkizunari begira, Anjel Navas-ek eta Jon Goikoetxeak zehaztu dituzte dituzten asmoak; tolosarraren kasuan, Ipar Polon edo desertuan trabesia bat egiteko nahia azaldu du, eta ibartarra, berriz, duen proiektuarekin jarraituz, Akonkaguara joango da azaroran.

iragarki laburrak ▶

Haur zaintzaileak, bereziak, adinekoak, hezitzaileak. Lanpostu libreak: jantokiak, haur eskolak. Informazioa doan 943 65 01 93 telefonoan.
Administrari laguntzaileak. Hurrengo deialdiak: Beasain,

Bergara, Sorraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Lanaldia: astelehenerik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira deituz gero.
Gidariak. Hurrengo deialdiak:

Donostia, Eusko Jaurlaritzan. Astean 35 ordu. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Suhiltzaileak. Hurrengo deialdiak: Gipuzkoa. 1.400 euro/hilean. Astean bi lanegun. Azken lanpostuak. Informazioa doan. 943 65 01 93.

Peoiki, ofiziko langileak. Lanpostu finkoak: igeltseroak, argiketariak, iturginak... eraikin publikoetan mantentze-lanetan aritzeko. Lanaldia: astelehenerik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan. 943 65 01 93.

Administrari laguntzaileak. Plazala libreak daude udalberako. 1.200 euroko soldata hilabetea. Lanaldia: astelehenerik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan lortzeko aukera, 943 65 01 93 telefono zenbakira deituta.



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Festa Alternatiboen barruan hilaren 15ean egingo den bazkarirako txartelak salgai daude betiko tabernetan, 5 eurotan.

Ibarra. ENAren tramitazioa egin eta ziurtagiria dutenek 635 00 94 96 telefono zenbakira deitu behar dute berriro tramitatzeko, datuak galdu egin baitira.

Tolosa. Herritarren Partaidetzako Jardunaldiak. 09:30ean eta 16:00etan, udaletxean.

Tolosa. Aitzol Udal Euskaltegiak EGA ikastaro trinkoa antolatu du irailean. Izen-ematea hilaren 15a, ostirala, amaituko da, euskaltegian bertan (Pablo Gorosabel. 943 65 10 06).

Tolosa. KZguneko ikastaroetan izen-ematea. Saiok, hilaren 11tik 22ra, 08:00etatik 10:00etara edo 10:00etatik 12:00etara.

Tolosa. Tolosako Ekinbide Etxeak (TEE-CIT) txoxngilo antzerkia haurrentzat idazlan lehiaketa antolatu du. Irailaren 1a baino lehen aurkeztu behar dira lanak TEE-n (Emeterio Arrese 2). 4.000 euroko saria dago eta obra eszenaratu egingo da.

Zizurkil. Udalak umorezko bakarrizketa lehiaketa antolatu du. Lanek euskaraz, orijinalak eta 500-700 hitzekoak izan behar dute. Sariak: 500 euro lehenak, 300 euro bigarrenak eta 150 euro herriko lehenak. Irailaren 15 arte eraman daitezke Aurrerako udal bulegoetara.

ERAKUSKETAK

Alegia. Fernando Rojoren eta Izarne Garmendiaren Afrikako argazkiak, Jubilatuen tabernan.

Hernalde. Pepi Arrutirenen olioak, Herriko Ostatuan.

Tolosa. Malen Urtzelaireren margolanak, Sorron enmarkazio dendan.

Tolosa. Xabier Galizaren akuarelak, Poxpolin

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Ibarra. Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.

Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Itsasoa eta mendia

TOLOSA ▶ Xabier Galiza artistaren akuarelak dira ikusgai Poxpolin dendako erakuslehoan; askotariko paisaiak margotu ditu galiziarrek



Itsasoko eta mendiko paisaiak ikus daitezke Galizaren erakusketan. IRATXE ETXEBESTE

JULEN GOIKOETXEA

Xabier Galizaren artelanak daude ikusgai Tolosako Poxpolin enmarkazio dendan. Sanjoanetatik jarritako dagoen akuarela erakusketan horretan mota ezberdinetako lanak ikus daitezke, eta begiratzearikin konformatzen ez denak badu koadro horiek erosteko aukera ere.

Itsasoa nahiz mendia irudikatu ditu bere lanetan Galizak. Kostaldeko herri arrantzaleetako portuen eta itsasontzien ondoan udazkenak dakarren kolore horiz jantzitako mendi inguruak ikusiko ditu erakusketaz gozatzea gerturatzen den orok.

Tamaina ezberdineko hama-bi akuarelez osaturik dagoen erakusketak arrakasta handia izan du, eta koadroak ikusgai dauden erakuslehoaren aurretik jende andana igarotzen dela esan dute Poxpolin dendakoek. «Asko izan dira artelanei begira denbora luze egon ondoren koadroak erosteko asmoz denda barrura sartu direnak». Jendearengan somatzen den ikusmina dela-eta erakusketak beste hainbat egunetan luzatzea erabaki dute.

Akuarela horien salmentari buruz, prezio ezberdinetako lanak daudela esan behar da. Ehun eurotik hasi eta zortzi-rehun euro bitarteko prezioak dituzte ikusgai dauden artelan horiek.

Galizaren akuarelak kristal batez babestuak daude. «Akuarelak oso delikatuak izaten dira, eta, horregatik, babesa jartzen diegu edozein ezustekoren aurrean hondatu ez daitezen».

Poxpolin denda esker oneko hitzak izan dituzte Xabier Galizarentzat. «Guretzat ere lagungarri izan da erakusketak hau; artearen munduan margildurik dabilen jendea erakusketak ikustera etorri da». Akuarela erakusketak hori ez da aurtur jarriko duten bakarra izango; izan ere, irailetik aurrera Hernandezen olioaren erakusketak ikusgai jarriko baitute Poxpolin. Beraz, gogoko duenak izango du arteaz gozatzeko jarraitzeko aukera.

AGURRAK ▶



ZORIONAK JETI!

Ondo ondo pasa zure urtebetetze egunean. Ea hurrengo urterako tripoxba hori kentzen dugun! Zure lagunak.



KAIXO

Tio Fashion.

Ausartuko ez nintzelakoan??
Muxuak. P... de Oro.

HITZA,
zorian agurren
tartea

Mesedez,
argazkia bi egun
lehenago ekarri.
Mila esker!

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behe
TOLOSA
Udaletxeko bulegoa
LEITZA